

“Valleko kondea, modernitatea eta tradizioa. Garai aldaketa baten isla”

“El Conde del Valle, modernidad y tradición. El fin de una época”

BERGARA 2016. AROZTEGI ARETOA

Argazki erakusketa • Exposición de fotografía

Urriaren 28tik azaroaren 13ra • Del 28 de octubre al 13 de noviembre

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN

Valleko kondea, modernitatea eta tradizioa. Garai aldaketa baten isla

ANTOLATZAILEA ORGANIZADOR

Begarako Udal Artxiboa Archivo Municipal de Bergara

INPRIMAKETA-EDIZIOA IMPRESIÓN-EDICIÓN

K3 Inprimategia

ARGITARAPENA EDICIÓN

Begarako Udala Ayuntamiento de Bergara

LEGE GORDAILUA DEPÓSITO LEGAL

SS-2060-2016

ERAKUSKETA BAT, DISKURTSO EZBERDINAK

Erakusketaren irakurketa historikoa

Valleko kondea, Ignacio Murua Balzola, XIX. mendearen bukaeraren eta XX.aren hasieraren artean bizi izan zen. Aldaketa garrantzitsuen garaia da: Antzinako Erregimenetik gizarte liberal, burges eta industria-lerako trantsizioa.

Valleko Kondeak argazkien bitartez bere gizarte-kideen eguneroko bizitza erakusten digu; bizimodua eta gizartea ulertzeko modu berezia, bukatzen ari zena: errentatik bizitzea.

Erakusketan azaltzen diren modernitate-alderdiak aurrerapen zientifiko eta teknikoarekin lotzen dira, baina ikuspegi erlijiosoa eta politikoa, berriz, erabat tradizionalak dira. Bere integrisimo katolikoak eta antiliberalismoak bultzatuko dute 36ko gerran altxamenduaren alde egitera.

Garaia hobeto ezagutzeko, eta Valleko Kondea iraganeko garaietako gizarte-ingurune bateko adierazlea dela ikusteko, ezinbestekoa da Alfonso Otazuk idatzitako liburua irakurtzea: "El fotógrafo frente a la cámara y de cerca. Notas sobre el Conde del Valle (Bergara, 1863 - San Sebastián-Donostia, 1953)" http://static.bergarakoartxiboa.net/pdf/El_Conde_del_Valle_fotografo.pdf .

Argazkigintzaren diskurtsua

Valleko kondearen fondoari esker, oso ondo ikus daiteke zer nolako teknikak eta euskarriak erabiltzen ziren XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran, baita horiek bizi duten bilakaera ere.

1. Teknika eta euskarriak

- 1.1. Linterna magikoaren plakak. Linterna magikoko proiektzioak hainbat ikasketa ilustratzeko erabiltzen ziren: Arteak, Fisika, Historia.
Ikus-entzunezko ikuskizuna izaten zen; irudiak proiektatzen ziren bitartean soinua jartzen zen sinkronikoki. XIX. mendearen bukaeran, kultura-arloan oso garrantzi handia izan zuen.
- 1.2. Estereoskopioak
Estereoskopioak sekulako arrakasta izan zuen, irudia hiru dimentsiotan ikusteko aukera ematen zuelako. Erabili beharreko tresna 1851tik aurrera merkaturatzen hasiko da, eta argazkilari profesional askok irudi estereoskopikoak argitaratzen zituzten, bildumak egiteko aukera emanez.
 - a) Irudi estereoskopikoen serieak, albuminazko paperean eginak, eta orratzekin zulatuta daude, atzealdean argia jarriz gero argizatuta ikusten dira; farolak argiekin eta kaleak koloretan.
 - b) Beirazko plaka estereoskopikoak ere badaude.
- 1.3. Lumière autokromoak. Beira gaineko kolorezko argazkiak dira, patata-fekularekin egiten ziren.

2. Argazkilariak

Valleko Kondearen fondoan argazkilari askoren argazkiak daude; nahiz eta fondo oso handia ez izan, garaiko argazkilari famatuenetakoen argazkiak daude; hala nola, Nadar, Canovas o Kaulak.

3. Argazkigintzaren balioak

Argazkiek bertan ateratako objektuen edo pertsonen informazioa ematen digutenez, ukaezineko balioa dute dokumentu historiko gisa. Horretaz gain, argazkia errealitatea islatzen duen irudi esanguratsu be-

zala hartzen badugu, horrek lagundu egingo digu errealitate soziala bere osotasunean ulertzen. Valleko kondearen fondoak, zentzu horretan, gizaritearen eta historiaren lekukotza eskaintzen digu.

Valleko kondearen fondoa eta udal artxiboa

Udal artxiboak urteetan zehar Valleko kondearen fondoko argazkien dohaintza ugari jaso ditu. 1200 argazki inguru izan dira, eta gure ustez kondearen bildumako zati txiki bat baino ez dira izango.

Bere argazki-zaletasuna garbi ikusten da ere. Argazki batzuetan, Ignacio Murua bera agertzen da kliskagailuarekin argazkia egiten. Badakigu Errotalde jauregian bertan argazki-laboretegia zuela eta beharrezko materiala Parisen erosten zuela. Sortu berri zen Madrileko argazkilaritza elkarteko kide ere izan zen. Argazkilaritza aurrerapen zientifiko-teknikoetarako zuen zaletasunaren beste atal bat da. Modernitate-kutsua ematen dio.

Valleko Kondearen beste ezaugarrietako bat bere zorrozatasuna izan zen. Kasu askotan, argazkien atzealdean kondeak berak eskuz idatzitako informazioa dago: tokiak, datak, pertsonak. Hori laguntza handia izan da argazkiak denboran edo lekuan zuzen kokatzeko.

Zer esan dezakegu fondo honi buruz?

- a) Valleko kondearentzat argazkigintza **zaletasuna** izan zen, denbora-pasa. Errotalde jauregiko lorategian arratsalde pasa dauden bitartean, argazkiak ateratzen daude. Hasiera batean, atzealdean izara zuri bat jarrita; aurrerago, pantaila bat propio erosituta. Eta argazkia egin ondoren, laboretegian esperimentuak, "Almirante de Oiquina" plaka estereoskopian berak idazten duen moduan. Ildo horri jarraituz, kolorearekin ere egin zituen frogak, autokromoetan ikusten den bezala.
- b) Gure ustez, Valleko kondeak argazkiak ateratzeko helburuen artean ere egon zitekeen gertaera edo egoera jakin batzuk **jasota gelditzea**. Ez dugu uste kasualitatea denik jasota dauzkagun argazkien artean bere jabegoko baserrien irudiak denak 1917koak izatea. Intentzio berarekin egingo zituen petrolio-indusketen argazkiak Agurainen.
- c) Argazkiak, bisita, bidai eta aisialdiko **oroigarri** gisa. Gaur egun normaltzat hartzen duguna –gure bidaietako edo lagunarteko argazkiak egitea– Valleko Kondearen garaian oso gutxi batzuen esku zegoen bakarrik.
- d) Valleko Kondeak argazki argitaratuen **bildumak** ere egin zituen; horiei esker, ilustratu, ikasi eta entretenitu egiten da. Azpimarratzekoak dira albuminazko papereko irudi estereoskopiko bildumagarriak eta linterna magikoak, non islatzen diren hainbat museotako artelanak edo hiritako bistak; Parisen saltzen zituzten Leon Gaumont, Molteni eta Lévi&sesfils enpresek. Horrela, kulturarekiko zuen jakin mina ase egiten zuen, eta argazkien bidez mundu zabalerako leiho bat zabaldu zuen.

Udal artxiboan jasotzen ditugun dohaintzei esker gure memoria kolektiborako behar ditugun informazio-iturriak zabaldu eta dibertsifikatu egiten dira. Baina jaso ondoren, horiek kudeatu egin ahal izateko, pertsona eta material baliabideak behar ditugu. Dena den, gure ustez azpimarratu egin behar da gure fondoetan aberastasun handia dugula eta Bergarako herritarrekin oso lotura estua; izan ere, haiek ondo dakite fondoak baliotsuak direla, eta udal artxiboan euren dohaintzak ondo gordeta, kudeatuta eta deontzako kontsultagarri egongo direla.

UNA EXPOSICIÓN CON DISTINTOS DISCURSOS

La lectura histórica de la exposición

El Conde del Valle, Ignacio de Murua y Balzola, vivió a caballo entre el siglo XIX y el siglo XX. Son momentos de cambios importantes; es la transición del Antiguo Régimen a una nueva sociedad liberal, burguesa e industrial.

El Conde del Valle a través de sus fotografías nos enseña la vida cotidiana de su círculo social, una determinada manera de vivir y de entender la sociedad que se acaba: vivir de rentas.

Los rasgos de modernidad que vemos en la exposición están asociados a adelantos técnicos y científicos, pero en sus planteamientos religiosos y políticos es totalmente tradicional. El integrismo católico y su anti-liberalismo le llevan a abrazar la causa nacional en el 36.

Para entender mejor este período y cómo el Conde del Valle es un exponente de una época pasada y de un determinado medio social, es imprescindible leer el libro de Alfonso Otazu "El fotógrafo frente a la cámara y de cerca. Notas sobre el Conde del Valle (Bergara, 1863 - San Sebastián-Donostia, 1953)" http://static.bergarakoartxiboa.net/pdf/El_Conde_del_Valle_fotografo.pdf

Discurso fotográfico

La colección del Conde del Valle es un buen exponente de la evolución de las técnicas y soportes fotográficos empleados a finales del siglo XIX y principios del siglo XX.

1. Técnicas y soportes

- 1.1. Placas de linterna mágica. Las proyecciones de linterna mágica se emplearon para ilustrar diversas enseñanzas como el arte, la física o la historia.

Se trataba de un espectáculo audiovisual, basado en la proyección de imágenes y uso sincrónico de sonidos. Tenía a finales del siglo XIX una gran trascendencia cultural.

- 1.2. Estereoscopias

La estereoscopia fue una de las variedades de la fotografía que más éxito tuvo, porque conseguía reproducir la visión en tres dimensiones. Se comercializa el aparato estereoscópico desde 1851, y muchos fotógrafos profesionales editan imágenes estereoscópicas en series coleccionables.

- a) Series de imágenes estereoscópicas en papel albuminado, agujereadas con alfileres, que al mirarse con luz trasera reflejada muestran las farolas iluminadas y las calles en color.
- b) También se conservan placas de vidrio estereoscópicas.

- 1.3. Autocromos Lumière, que son fotografías en color sobre vidrio realizadas con fécula de patata.

2. 2. Fotógrafos

En el fondo del Conde del Valle se conservan fotografías de numerosos fotógrafos y, a pesar de que el fondo no es muy grande, hay una muestra significativa de los fotógrafos más prestigiosos de la época; Nadar, Cánovas o Kaulak, por ejemplo.

3. Los valores de la fotografía

La fotografía como depositaria de información sobre los objetos y/o sujetos fotografiados tiene un innegable valor de documento histórico. Además de lo dicho anteriormente, si entendemos la fotografía como

una imagen representativa de la realidad podemos entender que las fotografías pueden contribuir a una comprensión más global y menos parcializada de la realidad social. El fondo privado del Conde del Valle es por tanto un testimonio social e histórico.

El fondo del Conde del Valle y el archivo municipal

El archivo municipal ha recibido a lo largo de los años numerosas donaciones de fotografías pertenecientes al fondo del Conde del Valle. Hemos reunido unas 1200 fotografías, que, creemos, es una pequeña parte de la colección.

Sabemos de su afición a la fotografía por las imágenes que nos han llegado en las que Ignacio de Murua aprieta el obturador a distancia por medio de un cable disparador de pera. En su palacio de Errotalde montó un laboratorio fotográfico completo y compraba el material necesario en París. Fue miembro de la entonces recién creada Sociedad Fotográfica madrileña. La fotografía forma parte de su interés por los avances científicos y técnicos. Se puede entender como un rasgo de modernidad.

Otro de las características del Conde del Valle es su meticulosidad; en muchos casos las fotografías que hemos recibido contienen en la trasera un texto manuscrito que nos informa de lugares, fechas y personas. Esto ha supuesto una gran ayuda para contextualizarlas.

¿Qué podemos decir de este fondo?

- a) Para el Conde del Valle la fotografía es una **afición**, un pasatiempo. Mientras pasan la tarde en el jardín de Errotalde se hacen fotografías. Primero usa una sábana blanca como telón de fondo, y más adelante compra una pantalla para ello. Después experimentaría en el laboratorio; como él mismo escribe en la placa estereoscópica del “Almirante de Oiquina”. En esta misma línea hace pruebas con el color, como se ve en los autocromos.
- b) Pensamos que el Conde del Valle también usa la fotografía para dejar **constancia** de algún hecho o circunstancia. En ese sentido, no nos parece casual que las pocas fotografías de caseríos de su propiedad que nos han llegado sean todas de 1917. También creemos que responden a la misma intención las fotografías hechas de las perforaciones petrolíferas de Salvatierra-Agurain.
- c) Las fotografías como **recuerdos** de visitas, viajes y de actividades de ocio en general. Esta es la línea que a lo largo del siglo XX se ha socializado. Hoy en día todos y todas hacemos fotografías de nuestros viajes, encuentros con amistades, etc. Pero en esas fechas eran actividades que estaban al alcance de unos pocos.
- d) El Conde del Valle **colecciona** fotografías editadas, a través de las cuales se ilustra, aprende y se distrae. Destacamos las imágenes estereoscópicas coleccionables en papel albuminado y las linternas mágicas en las que se reproducen obras de arte de museos y de vistas de ciudades, distribuidas desde París por Leon Gaumont, Molteni y Lévi & sesfils. Dan respuesta a su inquietud cultural y a través de las fotografías consigue abrir una ventana al mundo.

Las donaciones que recibimos en el archivo municipal suponen ampliar y diversificar las fuentes de información necesarias para elaborar nuestra memoria colectiva. Esto requiere también de medios materiales y humanos para poder gestionarlos. Pero creemos que hay que hacer hincapié en la riqueza de los fondos conservados y en la conexión que existe con los bergareses, que entienden del valor que tienen y saben que en el archivo municipal sus donaciones estarán bien conservadas y gestionadas y su consulta será pública.

Valleko kondea, modernitatea eta tradizioa. Garai aldaketa baten isla. *El Conde del Valle, modernidad y tradición. El fin de una época*

1902ko ekainaren
3an. Valleko kondea
autoan Madrileko
Castellanan.

*3 de junio de 1902.
El Coche del Conde
del Valle en La
Castellana de Madrid.*



1906. Prozesioa
Ariznoa plazan.
*1906. Procesión en
la plaza Ariznoa.*

Senar-emazteak

Ignacio 1893. urtean ezkondu zen, Madrilen, emaztegaiaren familiak Genova kaleko etxean zuen otoiztegian. Labayen familia, dirua egin berrikoa izanda, ez zuen maiorazkorik edo hirihigiezirik, baina ondasun ugariaren jabea zen eta handik errenta onak zituen. Horretaz gain, Pilar polita zen eta ondo hezitakoa. Dударik gabe, ezkontza egokia izan zen.

El y ella

Ignacio se casa en 1893 en Madrid, en el oratorio que la familia de su mujer tiene en su casa de la calle Génova. La familia Labayen era de fortuna reciente y tenían bienes con rentas considerables, alejadas de los mayorazgos y las fincas urbanas. Además Pilar era bonita y tenía una buena educación. Fue, sin duda, una boda adecuada.



Santa Anan, 19018ko abenduaren 1ean. Zilarrezko Ezteiak.
Santa Ana, 1 de diciembre de 1918. Bodas de Plata.

Bizimodu diruduna: etxea eta etxeakoak

Errotalde jauregia Murua familiaren etxe nagusia izan da XVII. mendez gero, Martin Muruak erosi zuenetik Sevillatik dirudun bueltatu zenean. Ignacio Murua, Valleko IV. Kondea bertan bizi izan zen. Mendeetan zehar arbasoek bildutako baxera, koadro eta liburuez inguratuta, baina bere garaiko erosotasunekin, bizimodu aberatsaren lekuko da.

Vida acomodada. La casa y los de casa

El palacio de Rotalde es la casa principal de la familia Murua desde que en el siglo XVII Martín de Murua la compró al volver de Sevilla con dinero. Ignacio Murua, IV Conde del Valle vivió en ella rodeado de la vajilla, cuadros y libros atesorados a lo largo de los siglos y con las comodidades propias de su tiempo llevó una vida adinerada.



1918. Errotalde jauregiko jangela.
1918. Comedor del palacio Errotalde.

Aurrerapen zientifiko eta teknikoekin liluratuta. Argazki-zaletasuna, gutxi batzuen eskura

Valleko Kondeak betidanik izan zuen aurrerapen teknikoenganako interesa. Aldizkari espezializatu asko jasotzen zituen. Autoenganako eta argazkigintzako zaletasunak bizitza osoan zehar mantendu zituen.

Argazkigintza bere denbora-pasa gogoenatarikoa izan zen; eta Errotaldeko lorategia, argazki horien ohiko eszenatokia. Askotan antzematen da, gainera, argazkia ebaki baino lehen, irudia ateratzerakoan atzealdean erabiltzen zuten izara zuria. Beste batzuetan, berriz, Ignacio bera agertzen da argazkietan, horretarako urruneko kliskagailu bat erabilita.

Fascinación por los adelantos científicos y técnicos. La afición a la fotografía al alcance de unos pocos.

El Conde del Valle siempre estuvo interesado por los adelantos técnicos. Estaba suscrito a numerosas revistas especializadas. Mantendrá la afición por los coches y la fotografía la a lo largo de toda su vida.

La fotografía es uno de sus pasatiempos preferidos, y el jardín de Errotalde se convierte en escenario habitual de ello. Podemos ver en muchos casos la tela blanca puesta como fondo antes de recortar la fotografía. En otras ocasiones él mismo aparece en la foto y la hace con un disparador.



Taldeko erretratua, Ignacio Murua argazkia ateratzen kliskagailuarekin.
Retrato de grupo. Ignacio Murua sacando la fotografía con el disparador.

Bidaiak eta txangoak

Gaur egun gure gizartean aisialdirako denbora izatea eta bidaiak egitea oso hedatuta dago. Vallero Kondearen garaian, ordea, gutxi batzuen esku zegoen; nahikoa diru eta denbora zutenek bakarrik egin zezaketen.

Bidaiatzean beste leku eta parajeak ezagutzen dira; batzuetan erlijio-arrazoiak medio –Erroma, Lourdes edo Sevillako Aste Santua, adibidez–; beste batzuetan, berriz, hiri handi batean egonaldi bat egiteko aukera –Madril edo Paris– eta bertan modako arropa erosi, museoetara joan, jabetxe onetan bazkaldu, zinera edo antzerkera joan, argazkilari batengana joan... Labur esateko, egunean egoteko modua.

Lagunen arteko bisitaldi ugariak (bisitak hartuz edo eurak bisitan joanda) estutu egiten dituzte euren familiako eta zirkulu sozialeko harremanak. Txangoak antolatzen dituzte inguruak eza-gutzeko, piknik egiten dute, kostaldera joan...

Viajes y excursiones

Actualmente viajar y disponer de tiempo libre son actividades muy extendidas en nuestra sociedad. Tenemos que pensar que en la época del Conde del Valle estaban solo al alcance de unos pocos que disponían tanto de recursos económicos como de tiempo para ello.

Los viajes son una manera de conocer otros lugares; algunas veces tienen un interés religioso, como los viajes a Roma, a Lourdes o a la Semana Santa de Sevilla. Otras en cambio es una oportunidad de pasar una temporada en una gran ciudad como Madrid o París y visitar museos, comprar ropa a la última moda, comer en buenos restaurantes, ir al cine o al teatro, ir al fotógrafo... En resumen estar al día.

Las frecuentes visitas de las amistades, y a las amistades, estrechan las relaciones de su círculo social y familiar. Organizan excursiones a los alrededores, van de picnic, a la costa...



Biarritz

Ekonomia

Valleko Kondearengan aurkitzen ditugun modernitate-kutsuek kontraste handia sortzen dute tradizioan oinarritzen zuten ekonomiarekin: ondasunak errentamenduan edukiz edo errenta finkoko inbertsioak eginez. Aspaldiko oinetxe nagusietako maiorazkoa zenez (Murua, Jauregi, Balzola eta Larretxe eta Manzidor), baserri eta etxe askoren jabea zen, eta alokatuta zituen, urteko errenta-kopuru baten truke. Errentaz bizi zen.

Maiorazkoaren instituzioa –saldu ezineko eta atxikitako ondasun-multzoak mantentzea lortu zuen instituzioa— 1841. urtera arte egon zen indarrean, baina, hala ere, familia askotan dinamika horrek iraun egin zuen eta ondasun gehienak bakar batek hartzen zuten herentzian; eta gero ezkontzen estrategiari esker, gainontzeko oinordekoei dote-diruekin ordaintzen zieten bakoitzari zegokion senipartea (legitima).

Economía

Los aspectos de modernidad encontrados en el Conde del Valle contrastan con una economía de base tradicional; alquilando los bienes o invirtiendo en renta fija. Como heredero de los antiguos mayorazgos de Murua, Jauregui, Balzola y Larretche y Mancisidor es dueño de numerosos caseríos y casas que alquila a cambio de una renta anual. Vive de las rentas.

Aunque la institución del mayorazgo –que permitía mantener un conjunto de bienes vinculados, que no se podían vender– estuvo vigente hasta 1841, en muchas familias se mantuvo la dinámica de que la mayoría de los bienes los heredara uno de ellos; la estrategia matrimonial estaba destinada a pagar la legítima de los demás herederos con el dinero aportado en las dotes.



1/2	Del Caserío "Bobe" o Valero de Santa Ana
2/3	"Escoria"
3/4	"Larregui domineria"
4/5	"Borregui Celica"
5/6	Alcay
6/7	"Vas"
7/8	"Baserri"
8/9	"Papelada"
9/10	"J. Laburu"
10/11	"Borregui-guila"
11/12	"Caceres-Alcay"
12/13	"Alcay-casero-Va Cantu"
13/14	"Garra-cua"

En Santa Ana - Bergara - Verano de 1910.

1910ko uztailaren 7an. Errotaldeko sukaldeko atearen aurrealdean, Bergarako Valleko kondearen baserrietako maizterrak, emakumezkoak. *7 de julio de 1910. Inquilinas de los caseríos propiedad del Conde del Valle en Bergara, delante de la puerta de la cocina del palacio Errotalde.*

Erljioa

Valleko kondearen ezaugarri nagusia bere katolizismo integrista da, eta horren eraginez duen ideologia politikoa. Bere erlijio-pentsaera lotuta doa kanpoalderako erlijio-zeinuekin; horrenbestez, gizarteko kide “gailendua” denez, aktiboki hartzen du parte, adibidez, Bergara eta Elorrioko prozesioetan. Gainera, harro zegoen Santa Ana ermitaren jabea izateaz; Borjako San Frantziskok bere meza berria ermita horretan eman baitzuen.

Religión

El Conde del Valle se caracteriza por un catolicismo integrista que impregna su ideología política. Su pensamiento religioso va unido a signos externos de religiosidad en los que como miembro “destacado” de la sociedad toma parte activa; las procesiones de Bergara y Elorrio. Además tiene a gala ser dueño de la ermita de Santa Ana, lugar donde San Francisco de Borja dio su primera misa.



Prozesioa Artekaleetik San Pedro elizarantz abiatzen.
Procesión desde Artekalea hacia la iglesia de San Pedro.

Politika

Aitaren aldeko familiatik XIX. mendetik zetorkion tradizio karlistaren oinordekoa izanik, Ignacio Murua 1907. urtean senatari izan zen hautagaitzerrenda katoliko eta foruzalearen barruan. Integritismo katoliko horrek eta antiliberalismoak eramango dute 36ko gerran bando nazionalaren alde egitera.

Política

Heredero por parte paterna de una tradición familiar carlista desde el siglo XIX, Ignacio Murua fue senador en 1907 por la candidatura católico fuerista. Es el integritismo católico y el antiliberalismo lo que le lleva a apoyar al bando nacional en la guerra del 36.



1937ko apirilaren 26an. Valleko kondea Camilo Alonso Vega koronelarekin Errotalden.
26 de abril de 1937. El Conde del Valle con el coronel Camilo Alonso Vega en Errotalde.

“Valleko kondea, moder-
nitatea eta tradizioa. Garai
aldaketa baten isla”

“El Conde del Valle, moder-
nidad y tradición. El fin de
una época”

Orduategia:

asteartetik ostiralera
larunbatetan

18:00 - 20:30

12:00 - 14:00

18:00 - 20:30

igande eta jaiegunetan

12:00 - 14:00



AROTEGI
ARETOA



**Begarako
Udala**

